




# ARANGUREN IBARREKO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA





# ARANGUREN IBARREKO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA



Diseinua eta maketazioa: Nerea García Domínguez de Vidaurreta  
Inprimatzea: Gráficas Alzate

## *Agur Arangurendarrak,*


*Atsegin handiz aurkezten dizuet Aranguren Ibarreko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzeko Ordenantza. Ordenantza hori Aranguren Ibarreko udalak gure Ibarreko kultur ondarea den euskararen zaintza eta sustapenean eta bertako biztanleen hizkuntza eskubideen betetze mailan aurrera egin ahal izateko hartu duen konpromisoaren adierazle da.*

*Aranguren Ibarra eremu mistoan sartzeak espektatiba berriak sortu zituen eta hiritarren zenbait hizkuntza eskubideen aitortza suposatu zuen. Aldi berean, Udalak eskumen eta funtzio berriak eskuratu zituen. Espektatiba horiek ez zapuzteko eta kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzeko, eskumen eta funtzio horiek era mailakatuan bete behar genituela ikusi genuen. Ordenantza honek betetze maila hori lortzeko araudia ezarri nahi du.*

*Ordenantza hau Ibarreko hizkuntza aniztasunaren berreskurapen eta zaintzarako urrats bat gehiago besterik ez da, baina ez garrantzi txikikoa. Nik eta udalbatza osoak dugu Ordenantza honek horretarako ekarpena egingo duenaren itxaropena.*

*Alkatea,  
Manuel Romero Pardo*





# ARANGUREN IBARREKO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Zioen azalpena _____	7
I. KAPITULUA: _____ Ordenantzaren xedea eta aplikazio eremua	9
II. KAPITULUA: _____ Administrazioen arteko harremanak	10
III. KAPITULUA: _____ Herritarraren eskubideak	11
IV. KAPITULUA: _____ Udalaren kanpo irudia	12
V. KAPITULUA: _____ Udal langileak eta barne funtzionamendua	14
VI. KAPITULUA: _____ Kontratazioak	16
VII. KAPITULUA: _____ Euskararen sustapena	17
Azken xedapenak _____	20

# ARANGUREN IBARREKO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

**A**ranguren Ibarreko Udalak, 2013ko irailaren 24an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Aranguren Ibarreko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza.

Jendaurrean jartzeko iragarkia 2013ko 191. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 3an; jendaurrean egon bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu.



**A**ranguren Ibarreko auzoak mendetan mintzatu dira euskaraz. Hori adierazten dute zenbait idazki zaharrek, bertan diren toponimo askok, eta arangurendarrek egunero erabiltzen dituzten euskarazko hitz ugarik ere bai.

Aranguren Ibarreko Udalaren iritziz, arangurendar guztien ondare da gaur egun euskara, hura jakin eta erabiltzen dutenena, baita ez jakin eta ez darabiltenena ere. Gaztelaniarekin batera, Ibarreko hizkuntza berekia da. Gainera, Nafarroako Gobernuak eta Aranguren Ibarreko Udalak egindako ikerketa soziolinguistikoetan, auzoek behin eta berriz adierazi dute nahi dutela Ibarrean euskara sustatzea eta normalizatzea.

2010eko apirilean, abenduaren 15eko **Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen** 5.1 artikuluko b) atalean definitutako eremu mistoan sartu zen Aranguren Ibarra. Hondar urteetan Udalari euskarazko zerbitzuak eskatzen ahal dizkioten auzo elebidunen kopuruak gora egin du. Udala, erabiltzailearentzat zerbitzu publiko bat den heinean, asmoa dauka herritarren hizkuntza eskubideak betetzeko, ikerketek erakusten duten jarrerari erantzuteko eta kalteteko zerbitzu bat emateko.

Udalaren eta auzoen borondate argiaz gainera, kontuan hartu behar da abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru



Legeak Nafarroako hizkuntza berekizat daukala euskara, helburu harturik herritarren eskubidearen babesa euskara ikasteko, hitz egiteko, berreskuratzeko eta garatzeko. Lege horrek berak, herritarrei administrazio publikoetan euskaraz hitz egiteko eskubidea bermatze aldera, aukera ematen du zenbait lanpostutan euskaraz jakin beharra nahitaezkoa izateko eta beste batzuetan baloratzeko; betiere, lanpostu horien eginkizun bereziengatik euskaldunekin komunikatu beharra gerta badaiteke.



Bestaldetik, Espainiako Gobernuak 1992. urtean sinatutako eta berretsitako **Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutunak** berak ere aitortzen du euskara bezalako hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartu behar direla, aipatu hizkuntzetan hitz egiten duten hiztunen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna sustatzeko xedearekin. Hain zuzen ere 10. artikuluan honako aholkuak ematen dizkie administrazio agintariei eta zerbitzu publikoiei:

“...jendaurrean dauden agenteek erregioetako edo gutxiengoen hizkuntzak erabil ditzaten zaintzea, hizkuntza horietan mintzatzeko zaizkienekin”.

“...erregio hizkuntzetako hiztunek (...) eskaerak ahoz edo idatzita aurkeztu eta erantzuna hizkuntza horietan har dezaten zaintzea (...)”.

Beraz, ordenantza honen helburu orokorra da aipatutako arauditik eratorritako herritarren hizkuntza eskubideak eta hainbat ikerketatan adierazitako euskara sustatzeko borondatea bermatzeko Udalak dituen eskumenak eta zereginak betetzeko araudia zehaztea.

Ikuspuntu estrategiko batetik, ordenantza hau euskarak, bere egoera soziolinguistikoari dagokionez, udalerrian aurrera egiteko tresna da.





Hori dela eta, ondoko **HELBURU** espezi-fikoak ditu ordenantza honek:

**1. Herritarrek euskarazko arreta eta zerbitzua jasotzeko duten eskubidea bermatzea.**

**2. Udalaren zein Udalaren eskumeneko esparru guztietako euskararen ahozko eta idatzizko erabilerari buruzko araudia ezartzea.**

**3. Euskara ere Udalaren zerbitzu hizkuntza izan dadin, euskaraz jakitea derri-gorrezkoa izanen duten lanpostuak zehazteko irizpideak ezartzea.**

**4. Euskara jakitea nahitaezkoa ez den lanpostuetan, euskararen ezagutza baloratzeko ehunekoak zehazteko irizpideak ezartzea.**

**5. Udaleko langileen euskarazko formazioarako plan estrategikorako irizpideak ezartzea.**

**6. Udal zerbitzu guztiek Ibarreko biztanleria euskarara hurbiltzeko helburua beren plangintzan eta funtzionamenduan txertatzea.**

**7. Ordenantza honen xedeekin harremana duten neurri eta jarduerak sustatzeko araudia ezartzea.**

Aipatu den araudiarekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, ordenantza hau onestea erabaki da:

## ORDENANTZAREN XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

**1. artikulua.** Euskarak, udalerriko ondare gisa eta bertako herritarren hizkuntza eskubideak bermatuak izan daitezen, zaintza eta sustapen berezia behar du hizkuntza gutxiagotua denez gero. Ordenantza honen xedea da Udalak zaintza eta sustapen horretarako dituen eskumen eta zereginak arautzea.

**2. artikulua.** Ordenantzaaren aplikazio eremua Aranguren Ibarreko Udal mugapea da. Udalean bertan eta bere eskumeneko esparru guztietan kontuan hartuko da.

**3. artikulua.** Udaleko eskumenekoak diren eta besteren bitartez kudeatzen

diren zerbitzuetan, ordenantza honen IV. kapitulumua aplikatuko da eta herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko duten eskubidea bermatzeko bide guztiak jorratuko dira.

**4. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak bere egiten du euskararen erabileran eta sustapenean eman behar den “zeharkotasun” printzipioa. Udalaren zerbitzu eta barne kudeaketarako batzorde guztiek, ordenantza hau aplikatuko dute euren jardunean. Horretarako plangintza estrategikoa diseinatu eta aurrera eramateko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza izanen dute.

## ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK



**5. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak Foru Komunitateko erakundeei edo euskara hizkuntza ofizialtzat aitortua duten beste erakundeei zuzentzen dizkien agiri, jakinarazpen eta harreman administratiboak mailakamailaka ele bitan idazteko neurriak hartuko dira.

Ordenantza honi dagokionez ele bitan idatzitako agiria da testua osorik eta euskarri berean bi hizkuntzetan agertzen denean. Kontuan izan beharko da hizkuntzen arteko berdintasuneko tratamendua.

**6. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak beste edozein Administrazio Publikotatik euskaraz jasotako edozein agiriri erantzutekotan, ele bitan egingen du. Aurkeztutako idazkiari erantzuteko hizkuntza gaitasuna duen langile elebidunik ez dagoenean, euskara zerbitzuaren bidez egingen da.

**7. artikulua.** Aranguren Ibarreko herritarrek gaztelania hutsezko agiririk jasotzen badute zerbitzua eskaintzen dieten Foru Komunitateko beste Administrazio Publikoetatik, Aranguren Ibarreko Udalak eskatuko dio erakunde igorleari udalerriko herritarrei ele bitako agiriari bidaltzeko.

## HERRITARRAREN ESKUBIDEAK

**8. artikulua.** Herritar guztiek dute euskara ezagutu eta beste herritarrekiko harremanetan eta toki administrazioiko edozein esparrutan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea (Udala, bere erakunde autonomoak eta besteren bitartez kudeatutako zerbitzu publikoak).

**9. artikulua.** Udalaren informazio eta arreta lekuetan herritarrei harrera ele bitan eginen zaie (telefonoz zein aurrez aurre). Herritarrek aukeratutako berezko hizkuntza erabiltzeko neurriak hartuko dira, jarraitzeko. Besteak beste, euskaraz ez dakien langileren batek hizkuntza horretan zuzendu edota zuzentzeko asmoa agertzen duen herritarren bati arreta egin behar badio, inguruan duen langile elebidunen baten laguntza eskatuko du.

**10. artikulua.** Herritarrek Udalari, edo bere eskumeneko zerbitzu bati, zuzentzeko euskarazko idazki edo bestelako baliabide

telematiko bat erabiltzen badute, ele bitan erantzuten zaie. Ordenantza honen arabera ele bitako testuak 5. artikuluan ezarritako ezaugarriak izanen ditu. Idazkiari erantzuteko gaitasuna duen langile elebidunik ez badago, Udaleko euskara zerbi-tzuaren bidez eginen da.

**11. artikulua.** Herritarra Udalari, edo bere eskumeneko zerbitzu kudeatzaileari, idatziz gaztelaniaz zuzentzen zaion kasuetan ere, era progresiboan ele bitan erantzuteko neurriak hartuko dira.

**12. artikulua.** 9. 10. eta 11. artikuluetan ezarritakoa eraginkortasunez, hau da, itzulpenaren beharrik gabe bete ahal izateko, Udalak arreta publikorako lanpostuetan udal langile elebidunak egonen direla bermatzea helburu izanen duen jardueraplana diseinatu eta garatuko du, ordenantza honen V. kapituluan aipatzen den ildotik.



# UDALAREN KANPO IRUDIA

**13. artikulua.** Valle de Aranguren-Aranguren Ibarra izendapena erabiliko da, osoki, informazio, publizitate eta ekonomia xedeekin gure udalerrriaren aipamena egiten denean.

Gaztelaniazko testuetan Valle de Aranguren erabili ahalko da, eta Aranguren Ibarra euskarazkoetan. Edonola ere, izendapen osoa (Valle de Aranguren-Aranguren Ibarra) erabiliko da, gaztelaniazko zein euskarazko testuetako goiburuetan eta amaieran.

Udalaren izenaren tratamendu bera izanen dute Ibarreko herri eta kontzejuetako izen ofizialek.

**14. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak euskara eta gaztelania erabiliko ditu herritarrei zuzentzeko:

Honela, ele bitan eta 5. artikuluari jarraikiz, izanen dira, euskarri tradizionalen zein teknologia berrien bitartez, ondoko hauek:

a) Bandoak, ediktuak, kartelak, programak eta informazio plakak.

b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, idazpuruak eta gisako elementuak.

c) Eraikin, kale eta eremu publikoetako errotuluak.

d) Udalaren egoitza eta bulegoetako errotuluak, Udalaren ibilgailuetakoak eta langileen arropa eta uniformeetakoak.

e) Interes turistikoko, zerbitzuen kontroleko eta trafikoko seinaleak, etzanak izan ala zutikakoak.

f) Udalak administrazio prozedura guztien gaineko argibideak eman beharrez herritarren eskura jartzen dituen agiri eta ereduak.

g) Web orriak, blog-ak, eta herritar talde bati zuzendutako posta elektronikoak, SMSak eta antzekoak.

h) Beste edozein baliabide edo formatu, Udalaren irudia, kanpokoa edo instituzionala, adierazteko erabiltzen dena.

**15. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak ordenantza honen aplikazio esparruan dagoen edozein seinaleren administrazio erantzuleri eskatuko dio a, c, e eta h puntuetan ele bietako formak erabil ditzan.

**16. artikulua.** Kartelak, eskuorriak eta argitalpenak.

1. Karteletako osagarri guztiak ele bitan agertuko dira, euskarri bakarrean.

2. Udalaren jardueren gaineko propaganda eta informazio-eskuorriak ele bitan agertuko dira euskarri bakarrean.

3. Argitalpenak ele bitan jalgiko dira.

4. Udalaren web orria elebiduna izanen da.

5. Udalaren eta bere eskumeneko zerbitzuen telefono zerbitzu automatikoak euskaraz eta gaztelaniaz emanen dira.

**17. artikulua.** Publizitatea hedabideetan.

Udalaren jardueraren publizitate zein zabalpenderako prentsa idatzian, hedabide



digitaletan, zein ikus-entzunezko hedabideetan (irradi-telebistetan) jarritako udal iragarkiak ele bitan, euskaraz eta gaztelaniaz, argitaratuko dira.

**18. artikulua.** Udalaren hedabide berekiak edo Udalarekin dirulaguntza edo hitzarmenaren bidez lotuak daudenak: Udalean ordenantza hau beteazterazteko ardura duen Zerbitzuarekin elkarlanean behar diren azterlanak eginen ditu eta behar diren urratsak emanen Aranguren Telebistan euskararen presentzia handitzen joateko. Urratsak eta aurrerapausuak ematen ari direla bermatzeko, ebaluazio eta hobekuntzarako egutegi bat finkatuko da.

**19. artikulua.** Udal komunikabide gutzietako iragarleei jakinaraziko zaie iragarkiak ele bitan edota partzialki euskaraz jartzeko aukera dutela. Horretarako Udalaren euskara zerbitzua eskainiko zaie.

**20. artikulua.** Udalaren dirulaguntza jasotzen duten edo Udalarekin lankidetzat hitzarmena sinatuta duten elkarte, klub, fundazio, kolektibo, talde eta GKEk diruz lagundutako jarduera horietan ondorengoak izanen dituzte kontuan:

1. Euskarazko eskaerari erantzuteko bideak jarriko dituzte. Euskarazko taldeen sorrerarako eskatuko diren baldintzak (partaide kopurua) gaztelaniazko taldeen sorrerarako eskatzen diren berberak izanen dira.



2. Jarduera horien berri emateko herritarrei zuzendutako ohar, gutun, kartel, eskuorri eta bestelako euskarri idatziak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko neurriak hartuko dituzte; baita jarduera horietan bertan erabiliko dituzten egitarau, dokumentazio eta diruz lagundutako bestelako materialak ere. Horretarako Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahalko dute.

3. Neurriak hartuko dira jarduera horietarako erabiltzen diren eta diruz lagunduak dauden jantziak era progresiboan ele bitan egon daitezten.

4. Ahozko aurkezpenetan edo ekitaldietan euskararen presentzia handitzen joateko urratsak emanen dira.

**21. artikulua.** Ekitaldi publiko ofizialak. Aranguren Ibarreko Udalak ekitaldi publikoetan (prentsurrekoak, hitzaldiak, aurkezpenak harrera-ekitaldiak, omenaldiak etab.) euskararen erabilera handitzen joateko konpromisoa hartu du.

## UDAL LANGILEAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDUA



**2. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak konpromisoa hartzen du, pixkanaka, zirkuitu elebidunak ezarri eta langile publikoen euskarazko zerbitzua emateko gaitasuna handitzeko.

**23. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak zerbitzuen baitan eta zerbitzu eta sailen artean euskararen ahozko eta idatzizko erabilera bultzatzeko plan estrategikoak diseinatzeko lan taldea osatuko du.

**24. artikulua.** Teknologia berrien inguruko programa informatikoak eta udal egoitzetan erabiltzeko erositako material oro, posible den guztietan, euskaraz zein gaztelaniaz erabiltzeko prestatuta egonen da.

**25. artikulua.** Plantilla organikoan, ordenantza honen III. kapitulu

bermatzeko helburuarekin, euskararen jakite-maila ezarriko zaie lanpostu guztiei. Jakite-maila hau derrigorrezkoa edota merezimenduzkoa izanen da. Jakite-mailak Europako Erreferentzia Markoaren araberakoak izanen dira: B1, B2, C1 eta C2.

**26. artikulua.** Derrigortasuna ala merezimendua eta jakite-maila ezartzeko irizpide orokorrak:

a) Lanpostu bakoitzaren funtzioak aztertuta, Udaleko plantillan eta deialdi bakoitzean zehaztuko da lanpostu bakoitzari beharrezkoa zaion jakite maila.

b) Herritarrekin harreman zuzena izatea euren eginkizun nagusien artean duten plantilla organikoko lanpostuetan, maila edozein delarik ere, euskara jakitea derrigorrezkoa izanen da.

c) Zirkuitu elebidunak bermatze aldera, alor edo zerbitzu guztietan ezarri beharko dira euskara jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak.

d) Gainerako lanpostuetan euskara jakiteari emanen zaion puntuazioa, plantillan edo postu bakoitzerako deialdian zehaztuko da.

**27. artikulua.** Oposizioetan edota oposizio-lehiaketetan eskaturiko euskara maila ziurtatzeko frogatzen da 25. artikuluan zehaztutako jakite maila egiazatzeko titulua ofizialik ez dagoen kasuetan.

**28. artikulua.** Herritarrari euskarazko zerbitzua (ordenantza honetako III. kapituluaren herritarren hizkuntza eskubideak) bermatzeko helburuarekin, Udalak, ordenantza honetako 25. eta 26. artikuluetako irizpideak kontuan hartuz, euskararen alorrean prestatzeko planak, hiru urtekoak, diseinatuko ditu bertako langileentzat. Plan horietan in-

teresa duten langileentzako lanorduen murrizketa, diru-laguntzak eta izan litezkeen ordezkapenak aurreikusiko dira.

**29. artikulua.** Udal langile batek bere euskara gaitasuna administrazioak emandako prestakuntza planen bidez eskuratu badu, edo Udalean sartzeko nahiz bere lan bizitzako edozein fasean, dakien euskara baloratu bazaio, ezagutza hori Aranguren Ibarreko udal administrazioan egiten duen lanean erabiltzeko eskatuko zaio.

**30. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak esku hartzen duen zerbitzu mankomunitatu guztiei edota enpresa publikoei (Infolocal, uren mankomunitatea...) ordenantza honen edukia berri emanen die.

**31. artikulua.** Orobat, Nafarroako Gobernuak udalerrian ematen dituen zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, liburutegia) kudeatzen dituzten erakundeei ordenantza hau jakinaraziko die.



# KONTRATAZIOAK

**3** **2. artikulua.** Herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak emateko besteren bat kontratatzerakoan, Udalak kontratuan jasoko diren klausulen bidez, zerbitzua euskaraz jasotzeko erabiltzaileek duten eskubidea bermatuko du. Udalak, klausula horien bidez, kontratatutako zerbitzuetan euskararen ahozko eta idatzizko erabileran kalitate nahikoa ziurtatuko du.

Kontratazioaren xede den zerbitzua ematerakoan, herritarrekiko harremanetan ondoko **BALDINTZAK** beteko dira:

a) Enpresa esleipendunak herritarrei Aranguren Ibarreko berezko bi hizkuntzetan eskainiko die zerbitzua era progresiboan, ahoz zein idatziz.

b) Ibarreko biztanleei zuzenduriko erro-tulu, inprimaki, idazki eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko ditu enpresa esleipendunak.





# EUSKARAREN SUSTAPENA

## 1. titulua: udalerrian euskara sustatzeko plangintza

**33. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak urteko jarduera-planen proposamenak egin eta garatuko ditu euskararekiko motibazioa eta hizkuntza horren ezagutza eta erabilera gizatalde eta gizarte-esparru guztietan sustatzeko.

**34. artikulua.** Herri-tarrek Udalarekin euskara ahoz zein idatziz erabil dezaten, behar bezala adieraziko da langileen euskara maila eta hori erabiltzeko pizgarriak ezarriko dira.

**35. artikulua.** Zenbait helburu lortzeko ekintzak diseinatuko dira, konparazio batera, herritar elebidunen kopurua handitzea, elebidunek gero eta esparru gehiago izatea euskara erabiltzeko, herritar guztien sentsibilizazioa handitzea eta enpresen, denden edota mota orotako gizarte-agenteen jardunean euskararen erabilera handitzea.

**36. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak parte hartuko du Nafarroako Gobernuarekin edo beste toki-entitateekin koordinazioan sustatutako lan-ildoetan, adibidez, haurrak euskarazko murgiltze ereduetan matrikulatzeko kanpaina (euskaraz ikasteak dituen alde positiboen berri eman eskolatzear dauden haurren gurasoei), helduentzako euskararen irakas-



kuntza kanpaina, euskara familiaren bidez transmititzeko kanpaina eta programak, udal administrazioan euskara erabiltzera animatzeko kanpaina edo merkataritzan eta aisialdian euskararen erabilera sustatzeko kanpaina eta programetan. Halaber, euskararen gaineko motibazioa sustatzen duten aldizkarietan eta euskarazko udalekuen antolaketa koordinatuan ere hartuko du parte.

**37. artikulua.** Etorkinak. Etorkinei zuzendutako kanpaina berariazkoak egingen dira, euskararen berri eta Aranguren Ibarrean duen egoeraren berri izan dezaten.

**38. artikulua.** Toponimia. Aranguren Ibarreko Udala arduratuko da Udalerriko toponimia zaintzeaz eta haren gaineko informazioa zabaltzeaz. Kaleak, plazak, eraikinak eta Ibarreko gai-nontzeko elementuak izendatzeko toponimoak lehenetsiko dira.

### 2. titulua: Udal eskumeneko zerbitzuak

**39. artikulua.** Udaleko arloetatik (Gazteria, Kultura, Kirola, Gizarte Zerbitzuak, Ingurumena...) 3 eta 18 urte bitartekoentzat eskainitako euskarazko jarduera kopurua, orokorrean eta progresiboki, bat etorriko da euskarazko adarretan eskolatuak dauden aipatu adin bitartekoen proportzioarekin eta era egokian erantzunen zaio euskaldunen eskaerari. Halaber, helduei aisialdia euskaraz garatzeko aukera emanen zaie, euskarazko kultur, kirol eta bestelako jarduerak eskainita.

**40. artikulua.** Haur Eskola eta Musika Eskola.

1. Aranguren Ibarreko Udalak herritarrek udaleko hezkuntza arloko zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera bermatzeko bideak jarriko ditu, zerbitzuaren kudeaketa zuzenekoa edo zeharkakoa izan.

2. Haur Eskolan zein Musika Eskolan euskaraz ikasteko egindako eskari guztiei erantzun positiboa emateko baliabide eta

neurriak jarriko dira abian. Horrela, gurasoek hezkuntza zerbitzuetan beren semealaben hizkuntza eredia aukeratzeko duten eskubide librea bermatuko da. Aranguren Ibarreko Udalak horrela bete dadin exigituko die zerbitzu horien enpresa kudeatzaileei.

3. Musika Eskolan euskaraz ikasteko eskubidea honela gauzatuko da: taldekako ikasgai guztiak mailaka euskaraz ere eskainiko dira (euskarazko lerroa lehenengo mailatik ikasketak bukatu arte). Taldeak osatzeko baldintzak (ikasle kopurua) gaztelaniazko taldeak osatzeko berberak izanen dira. Bakarkako ikasgaietan, eskaera handiena duten instrumentuetan irakaskuntza euskaraz edo gaztelaniaz hautatu ahal izateko neurriak hartuko dira. Aipatutako irizpideak nahikoak ez badira talde zein ikasgaien osaketa zehazteko, Udalak erabiltzaileen eskaerak aztertu eta taldeen osaketarako eta eskaera gehieneko instrumentuak zein diren zehazteko proposamena egingen du.



### 3. titulua: Diru-laguntzak

**41. artikulua.** Aranguren Ibarreko Udalak diru-kopurua esleituko du bere urteroko aurrekontuetan, euskara ikasi nahi duten udalerriko helduak diruz laguntzeko. Diru-laguntzak urtero plazaratuko den deialdian arautuko dira.

**42. artikulua.** Diruz lagunduko dira gizarte ekimenez antolatutako euskarazko kultur jarduerak eta, orokorrean, ordenantza honek ezarritako helburuak eta euskararen sustapen soziala helburu dute-

nak. Diru-laguntzak urtero plazaratuko den deialdian arautuko dira.

**43. artikulua.** Euskararen sustapena helburu duten euskara hutsezko komunikabideek ere Udalaren diru-laguntza jaso ahalko dute.

**44. artikulua.** Udalak udalerriko establezimendu eta elkarten errotuluetan, eguzki-oihaletan eta ibilgailu komertzialean euskara erabiltzeko diru-laguntza deialdia agitaratuko du.



### 4. titulua: Komunikazioa

**45. artikulua.** Bi urtean behin Udalaren programak, kanpainak, ikastaroak eta ekitaldi zehatzak eraginkortasunez (pertsone bakoitzaren hizkuntzaren ezagutza mailaren arabera) komunikatzeko helburua duen Aranguren Ibarreko Euskaldunen Fitxategia eguneratzeko lanak egingen ditu Ibarreko Udalak. Horretarako, ikasturte amaieran Ibarreko 6 eta 7 urteko biztanleei galdetegia (1. eranskina: euskara neurri batean edo bestean ezagutzen duten Ibarreko bi urtetik gorako

biztanleei zuzendua dagoen galdetegia) bidaliko zaie. Helduentzako euskararen irakaskuntzaren bidez beren euskara gaitasuna hobetu duten horiei Fitxategian izena emateko gonbitea luzatzeko kanpaina bereziak ere egingen dira.

**46. artikulua.** Ordenantza honetan xedatutakoaren betetze mailari buruzko iradokizunak eta kexak bideratzeko tresna bat ezarriko da, 012 Infolocall telefonoaren bidez.

### **Lehena:**

Ordenantza honek, behin betiko onespeneren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

### **Bigarrena:**

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Informazio Batzordeak ahalmena du ordenantza honen jarraipena egiteko, eta urtero honen garapena eta betetzea bermatuko dituen proposamenak egingen ditu.

### **Hirugarrena:**

Aranguren Ibarreko Udalak bere urteroko aurrekontu orokorrean ordenantza hau bete dadin beharrezko kontu-sailak aurreikusiko ditu.

### **Laugarrena:**

Aranguren Ibarreko Udalak plantilla organikoa onartzeko ordenantza honetako irizpideak kontuan hartuko ditu.

### **Bosgarrena:**

Ordenantza hau onesten denean hori herritarren artean ezagutzera emateko materiala argitaratuko da, ordenantzak berak zehaztutako hizkuntza formatuan, eta etxe guztietara igorriko da.

**234. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 5koa.**